



Itsasertza lurralde gutzizatua da. Jarduera anitz metatu izan da bertan aspalditik. Azken hamarkadotan, gainera, okupazio-prozesu bizkortu eta lehiakor baten eraginpean dago, hainbat eragilek nahi baitute hortxe ezarri: hiritarrek, nekazariak, turistek, arrantzaleek eta industrialariak, besteak beste. Non eta natura-eta ingurune-balio handienetako espazioan. Hondartzak, dunak, labarrak, uharteak, padurak, albuferak eta itsasadarrak arpilatze-prozesu basatia pairatzen ari dira ezbairik gabe. Kostaldearen erabateko hirigintza-betetzea iragartzen du aipatutako joerak. Epe laburrera, gainera. Kosta ahala kosta.

Itsasbazterrak osasuntsu biziraungo badu, haren kudeaketak integrala beharko du izan. Itsasertza ez da soilik egungo legeriak arautzen duen itsas lehorreko jabetza publikoko eremua. Lurralde —zein itsasalde— zabalagoa da, tokiko politika sektorial hutsek bakarrik ganoraz antolatu ezin dezaketena. Gure kasuan, Europa mailako gidalerroek eta lurralde-estrategiek tokiko administrazioen arteko alferrikako kompetentzia-gerra baretzen lagundu dezakete, eskala handiagoko ikuspegi osoagoa bilatze aldera.

Ironikoa bada ere, hondartza jomuga zuen urbanizatze-ereduak hondartza bera eta haren ingurunea hondatzen bukatu du. 60ko eta 70eko hamarkadetan hondartzen parean egindako eraikin andana barnealderagoko lurretan birkokatu egin beharko da datozen hamarkadetan, itsasbazterra leheneratuko bada. Zeregin horretan arkitektura eta paisaiagintza funtsezkoak izango dira, bai eta erabaki politiko ausartak ere, beharrezkoak diren desjabetzeak eta eraispenak agintzeko.

Azken urteotako krisialdi ekonomikoak turismoarekin erlazionatutako etxebizitza berrien garapenkeria zerbait apaldu badu ere, sustapen publikoko proiektuzarrek —superportuek, itsasoko ura gatzgabetzeko instalazioek, itsas parke eolikoek eta enparauek— kostaldearen oreka eta iraunkortasuna kolokan jartzen jarraitzen dute. Garapenaren eta berrikuntzaren izenean justifikatzen zaizkigu aipatutako ekipamendu handiak, benetan berritzailea dena naturaren berezko balioa aintzatestea denean.

Higiezinen egungo eredu kolonizatzaileak itsasbazterra erabat urbanizatzen garamatza. Aldaketa klimatikoak eragindako itsasoaren mailaren igoera itzarotea baino ez al zaigu geratzen kostaldea garbitzeko? Ezezkoan gaude. Dagoeneko hausnarketa autokritikorako garaia dela uste dugu.